



ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO

SAILA

Etxebizitza Sailburuordetza

Etxebizitza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS

SOCIALES

Viceconsejería de Vivienda

Dirección de Vivienda

## IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

URTEKO TXOSTENA  
2015. URTEA



URTEKO TXOSTENA  
2015. URTEA

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA  
AURKIBIDEA

**1. AURREKARIAK**

**2. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN (ISEK) BILERAK**

- 2.1. 2015eko maiatzaren 20ko ezohiko osoko bilkura
- 2.2. 2015eko azaroaren 18ko ohiko osoko bilkura

**3. IRISGARRITASUNAREN ARLOKO LAGUNTZA-JARDUKETAK**

- 3.1. Jakinarazitako salbuespenak
- 3.2. Izapideutako desafekzioak
- 3.3. Konsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua
  - A- Kontseiluari egindako jakinarazpenak
  - B- Kontseiluaren aurrean jarritako salaketak
  - C- Konsultak
  - D- Lagunza-eginkizunak

**4. IRISGARRITASUNAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUKETEI BURUZKO INFORMAZIOAREN  
IGORPENA**

**1. eranskina**

**2015eko maiatzaren 20ko ezohiko osoko bilkuraren akta**

2015eko azaroaren 18ko ohiko osoko bilkuran onartu zen.

**ISEKen irizpena**

2015eko maiatzaren 20ko ezohiko osoko bilkuran adostutakoaren araberakoa

**2. eranskina**

**2015eko azaroaren 18ko ohiko osoko bilkuraren akta**

Onartzeke

**3. eranskina**

**ISEKi jakinarazitako salbuespenen aurkibidea**

**4. eranskina**

**ISEK osatzen duten erakundeen jarduketei buruzko informazioa  
igortzeko txostenak**





## 1. AURREKARIAK

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea honako helburu honekin onartu zen: hiri-ingurunearen, espazio publikoen, eraikinen, garraiobideen eta informaziorako eta komunikaziorako sistemen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiak eta, batez ere, mugigarritasun murriztua, komunikazio-zailtasunak edo muga psikikoak zein sentsorialak – aldi baterakoak zein iraunkorrik – dituztenek era autonomoan erabil eta balia ditzaten.

Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen V. tituluak IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA sortzen du 24. artikuluaren bidez, kontsultarako eta partaidetzarako organoa izateko. Ordezkariak dituzte organo horretan euskal administrazio publikoek, irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsonen eskubideak babestearen alorrean ordezkaritza handiena duten elkarrekin, kontsumitzaleen eta erabiltzaileen elkarrekin, sustapenaren eta eraikuntzaren alorretako elkartea handienek eta arkitektoen, aparejadoreen, eta bideetako, ubideetako eta portuetako ingeniarien elkargoek. 20/1997 Legearen 25. artikuluak arautzen ditu haren osaera eta egitura.

Hauak dira, 26. artikuluak arautzen duena aintzat hartuta, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren egitekoak:

- a) Urtean behin txosten bat egitea, lege honen arautzen duena zer mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
- b) Irisgarritasunaren arloan aginpidedun diren organoei laguntha eman eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege honetan xedatutakoaren arabera.
- c) Horren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.
- d) Bere esku uzten diren beste egiteko batzuk.

Hori horrela, abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, agintzen dion egitekoa betetzeko, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2015. urteko txostena aurkezten da agiri honetan.

## 2. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN (ISEK) BILERAK

### 2.1. 2015eko maiatzaren 20ko ezohiko osoko bilkura

2015eko maiatzaren 20an, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak ezohiko bilera bat egin zuen, irisgarritasun-araudiari jarraituz garraio-zerbitzuari exijitu beharreko irisgarritasun-baldintzei buruz eztabaideatzeko; zehazki, hauxe zen eztabaideagaia: "ibilbideak zer luzera izan behar duen" garraio-zerbitzua erabiltzeko.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak bi kideren eskaera jaso zuen - Bizkaiko Foru Aldundiaren Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Zuzendaritza Nagusiarena eta Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioarena (FEKOOR) - Etxebarriko anezka (Bizkaia) zela-eta.

Honako hauek biltzen dira dokumentu honen **1. ERANKSINEAN**: ezohiko bilkuraren akta (2015eko azaroaren 18ko osoko bilkuran onartu zen) eta hartutako akordioak biltze aldera Kontseiluaren Idazkaritzak idatzitako irizpena.

## **2.2. 2015eko azaroaren 18ko ohiko osoko bilkura**

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak ohiko bilera bat egin zuen 2015eko azaroaren 18an, 2014. urteari zegokiona.

Dokumentu honen **2. ERANSKINAK** ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa jasotzen du. Akta hori Kontseiluaren hurrengo ohiko bilkuran aurkeztuko da, kideek onar dezaten.

## **3. IRISGARRITASUNAREN ARLOKO LAGUNTZA-JARDUKETAK**

Orain arte Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza Zuzendaritza arduratu da Batzorde Iraunkorri eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari laguntza tekniko eta juridikoko zerbitzua emateaz, EAEn indarrean dagoen irisgarritasun-araudiarekin lotutako hainbat gaitan.

Jarraian, 2015. urtean egindako jarduketa horien guztien berri ematen da.

### **3.1. ISEKi jakinarazitako salbuespenak**

68/2000 Dekretuaren V. eranskineko —Birgaitze-, handitze- eta aldatze-lanak urbanizazioetan eta eraikuntzetan— 3.3. artikuluak agintzen duena betetzeko, 2015. urtean 104 salbuespen jakinarazi zaizkio Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari.

Salbuespen horien zerrenda dokumentu honetako **3. ERANSKINEAN** jasotzen da.

### **3.2. ISEKen Idazkaritzak izapideutako desafekzioak**

Batzorde iraunkorreko laguntza-zerbitzuak eta idazkaritzak aurretxostena eman dute eta Etxebizitzako Zuzendaritzak euskarri eman die Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak kudeatutako etxebizitzaren sustapen librean desafektatzeko expedienteei.

2015ean, zazpi (7) eskaera-espediente izapidetu dira, eta 7 etxebizitza eta bizitegi-eraikinetan kokatutako 22 garaje-plaza desafektatu dira.

DES	ESKATZAILEA	DESAFEKTATUTAKO ELEMENTUAK	SUSTAPENA
2015.01	ANIDA operaciones singulares SA	3 etxebizitza 9 garaje-plaza	115 etxebizitza eta 320 garaje-plaza Recalde zumarkalea 49-51, BILBO
2015.02	AMENABAR etxegintza berria SL	4 garaje-plaza	130 etxebizitza eta trasteleku EG 21-01 Alduaene, DONOSTIA Industriako eraikinak Astintze 6, DERIO
2015.03	ASUA grupo inmobiliario SL	5 garaje-plaza	Ezin da desafektatu. Izan ere, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak ezartzen du desafekzioa bizitegi-erabilera duten eraikinak soilik desafekta daitezkeela.
2015.04	EROARTE etxebizitza SL	1 etxebizitza 1 garaje-plaza	55 etxebizitza eta trasteleku UE UP-144, PORTUGALETE
2015.05	VIVIENDAS DE VIZCAYA SA	1 etxebizitza 1 garaje-plaza	57 etxebizitza eta trasteleku Landarraga 16-18, ARRIGORRIAGA
2015.06	CONSTRUCCIONES AMENABAR SA	1 etxebizitza 3 garaje-plaza	106 etxebizitza eta trasteleku Ramón y Cajal etorbidea, DEUSTU
2015.07	Sociedad EDIFICIO ANTIGUA CLÍNICA SL	1 etxebizitza 4 garaje-plaza	92 etxebizitza eta 139 garaje-plaza Rafaela Ybarra kalea 25, BILBAO

### 3.3. Konsultak ebatzeko eta aholkularitzako zerbitzua

Zerbitzu honen eginkizuna hauxe da: EAEn indarrean dagoen irisgarritasun-araudiaren interpretazioarekin lotutako izaera juridikoko eta teknikoko konsultei eta salaketei erantzutea.

A.- Irisgarritasunari buruzko aurreikuspenen inguruan **Kontseiluari egindako jakinarazpenak:**

<b>IRIS</b>	<b>ESKATZAILEA</b>	<b>GAIA</b>	<b>ERANTZUNA</b>
2015.01	Turismo Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza	2000. urtea baino lehen abian jarritako jabetxeek irisgarritasun araudiari jarraitu behar al diote?	20/1997 Legea eta 68/2000 Dekretua indarrean jarri zirenetik, jabetxe guztiak aplikatu behar dituzte horiek. Horrenbestez, egokituta ez dauden jabetxeek 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa bete behar dute. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar aplikatu beharreko tokiko eta sektoreko araudia.
2015.02	Hondarribiko Udala		Ezin izan gara harremanetan jarri emandako telefono zenbakian.
2015.03	Turismo Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza	Komunikatzeko zaitasunak dituzten pertsonen behar dituzten laguntza teknikoei buruzko araudiaren interpretazioa	Kasu honetan, 68/2000 Dekretuaren IV. eranskinean komunikazioaren irisgarritasunari buruz zehaztutakoa bete behar da.
2015.04	Gernika Lumoko Udala	Arkitektura-oztopoak kentzea helburu duten jarduketetan, bi araudi hauen artean sortutako gatazkak: irisgarritasun- araudia eta sutea dagoenean etxebizitzen segurtasuna erregulatzen duen araudia.	<p>Toki Administrazioak ditu araudia aplikatzeko eta berori betetzen den kontrolatzeko eskumenak. Hala ere, hona hemen zenbait irizpide tekniko gomendio gisa.</p> <p>Egindako eraikinetan, bizitegi-erabileraz ari garela, ondorengo baldintzak betetzen badira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaileraren zabalera gutxitzea beste irtenbiderik ez izatea igogailua jartzeko.</li> <li>- Obrek ez ekartzea eraikinaren errehabilitazio edo birgaikuntza integrala.</li> <li>- Eraikinak solairu gutxi eta etxebizitzen zenbateko txikia edukitzea.</li> <li>- Eraikinak solairu gutxi eta etxebizitzen zenbateko txikia edukitzea.</li> <li>- Bizitegi-erabilera nagusiaz bestelako erabilera publiko subsidiariok ez izatea, alde batera utzita bulego profesionalak eta negozioak, baldin eta batera 10 pertsona baino gehiago ezin badute hartsu.</li> <li>- Aldaketak okupazio-gehikuntzarik ez ekartzea.</li> </ul> <p>Igogailua jartzea onartuko da, eraikinaren irisgarritasuna hobetze aldera, baldin eta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaileraren zabalera 0,80 metro edo gehiago bada.</li> <li>- Solairu guztieta jartzen badira larrialdietako argiak.</li> <li>- Itzalgailu eramangarriak (21A-113B) jartzen badira bi solairutik batean.</li> </ul>

IRIS	ESKATZAILEA	GAIA	ERANTZUNA
2015.05	Turismo Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza	Idazten ari diren dekretu bat osatze aldera, irisgarritasun-araudia argitzea	Telefonoz erantzun zitzaien.
2015.06	Turismo Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza	Kasu jakin baten berri ematea. Durangon landetxe izateko egokitutako baserri bat dago. Udalak etxe pribatu batekin parekatu eta irisgarritasun-araudia aplikatzetik salbuetsi du.	Telefonoz erantzun zitzaien.
2015.07	Eginaren Eginez	Villabuena de Álava/Eskuernagako Kale Nagusian egindako urbanizazioa dela-eta prozedura arruntaren bidez jarritako 339/2014 administrazioarekiko auzerrekurtoarekiko ISEKek zer jarrera duen adieraztea.	Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari emandako eskumenen artean ez dago eraikuntza-proiektu zehatzei buruzko informazioa ematea. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak ez du informaziorik jaso "Villabuena de Álava/Eskuernagako Kale Nagusiko hiri-azpiegiturak eta zoladura eraberritzeko proiektua" izeneko urbanizazio-proiektuaren inguruan, eta, beraz, ez da zehaztu proiektu hori irisgarritasun-araudia aplikatzetik salbuetsita dagoenik.
2015.08	Donostiako Udalak	68/2000 Dekretua berrikustea gomendatzen da, oinarrizko araudiarekin bat etor dadin.	Behar diren aldaketak egin ezean, irisgarritasun-arloan bermerik handiena ematen duen araudia hartu beharko da kontuan.
2015.09	Donostiako Udalak	ISEKek kasu jakin honen inguruan bere jarrera zein den azal dezan eskatu da: Jabeen Erkidego baten eta beheko solairuan dagoen lokalaren jabeen arteko gatazka, erkidego horretan igogailua jarri eta horrek lokalari eragin diola-eta.	Abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzkoak, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari emandako eskumenen artean ez dago eraikuntza-proiektu zehatzei buruzko informazioa ematea. Halaber, ez da ISEKen eskumena lizentzia partikularra eskatzeko espedienteetik buruz bere iritzia ematea, ez eta eraginpeko aldeak bat ez datozen-eta, horrelako expedienteekin batera joan daitezkeen desjabetze-expedienteetik buruz ere.
2015.10	Bilboko Udalak	Etxebizitza-eraikinetan igogailuak jartzen diren kasuetan, udalak duen desjabetzeko ahalmenaren norainokoa	Lurzoruaren Legeak udalerri horretan aurreikusitako desjabetze-ordenantzari emandako eskumenen araberakoa da ahalmen hori.

<b>IRIS</b>	<b>ESKATZAILEA</b>	<b>GAIA</b>	<b>ERANTZUNA</b>
2015.11	Aguraingo Udala	Baranda bat jarri behar da nahitaez.	Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari emandako eskumenen artean ez dago eraikuntza-proiektu zehatzei buruzko informazioa ematea. Hala ere, VIV/561/2010 Aginduaren 30. artikuluan eta 68/2000 Dekretuan ezarritakoa bete behar da.
2015.12	Pertsona pribatu bat	Erreserbatutako etxebizitzak irisgarritasun-arauak betetzetik salbuesteko eskabide bat dagoela jakinaraztea.	Eskatzaileari erantzun zaio eta erantzun hori Bilboko Udalari ere helarazi zaio, haren eskumena baita bermatzea, araudian ezarritakoa betez, mugikortasun murriztu iraunkorreko pertsonentzat erreserbatutako etxebizitzen eraginkortasuna.

**B.- Irisgarritasunari buruzko aurreikuspenen inguruaren Kontseiluaren aurrean jarritako salaketak:**

<b>SAL</b>	<b>ESKATZAILEA</b>	<b>GAIA</b>	<b>ERANTZUNA</b>
2015.01	Pertsona pribatu bat Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren bitartez Eusko Jaurlaritza	Alhondigako GOLEM aretoetan, zinema irisgarriko saioak ikusteko sarrera falta	Erreklamazioa ez da 20/1997 Legean aurreikusitako irisgarritasun-baldintzak edo arau teknikoak ez betetzeari buruzkoa, eta, beraz, ez da Kontseilu honen eskumena.
2015.02	AEMAR, Arabako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea	Gasteizko autobus-geltoki berriak indarrean dagoen irisgarritasun-araudia ez betetzea	Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legearen arabera, lizenziak eta baimenak ematen dituen agintaritzari dagokio geltokiak indarrean dagoen araudia betetzen duela egiaztatzea eta bermatzea. Elkarre demandatzaleak aurkeztutako ez-betetzeen txostena helarazi zaio Gasteizko Udalari, eta hauxe eskuatua zaio: behar diren esku-hartzeak egin ditzan, autobus-geltokia indarrean dagoen araudian aurreikusitako irisgarritasun-irizpideetara egokitzeo.
2015.03	AEMAR, Arabako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea	Salburua Gizarte Etxe berriak indarrean dagoen irisgarritasun-araudia ez betetzea	Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legearen arabera, lizenziak eta baimenak ematen dituen agintaritzari dagokio gizarte etxeak indarrean dagoen araudia betetzen duela egiaztatzea eta bermatzea. Elkarre demandatzaleak aurkeztutako ez-betetzeen txostena helarazi zaio Gasteizko Udalari, eta hauxe eskuatua zaio: behar diren esku-hartzeak egin ditzan, gizarte etxea indarrean dagoen araudian aurreikusitako irisgarritasun-irizpideetara egokitzeo.

SAL	ESKATZAILEA	GAIA	ERANTZUNA
2015.04	ALEGRIA Activity SL.	Lanbidek eskainitako lan-orientabideko zerbitzu ibiltariek ez dute irisgarritasun-araudia betetzen	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan helarazi zaio salaketa. Ondoren, Kontseiluaren Idazkaritza Lanbiderekin harremanetan jarri da, eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzea oso garrantzitsua dela azpimarratu du. Desgaitasunen bat duten pertsonei tratu berezia ematea edo pertsona horiek egoera okerragoan egotea dakarten zerbitzuak ez dira onargarriak.
2015.05	ELKARTU	Donostiako autobus-geltoki berriak indarrean dagoen irisgarritasun-araudia ez betetzea	Gai horren berri eman da 2015eko azaroaren 18ko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren Kontseiluko zenbait kidek osatutako Batzorde Teknikoa deitu da, instalazioen ez-bebetze malla identifikatzeko eta Kontseiluari bere iritzia eman dezan eskatzeko.

**C.- Telefono eta posta elektroniko bidez egindako kontsultak:** irisgarritasun-araudiari eta harekin lotutako beste araudi batzuei buruzkoak; eta arkitektura-oztopoak kenduz irisgarritasuna hobetze aldera aurreikusitako diru-laguntza lerroei buruzkoak. Irisgarritasuna interpretatzeko irizpideei buruzko informazioa eman da, irizpide horiek, denboraren poderioz, irisgarritasun-araudia benetan aplikatzeko irizpide bihurtu baitira.

2015ean 218 kontsultari erantzun zaie guztira.

Zerbitzuak artatutako kontsultak aztertu dira, bai telefono bidez egin direnak bai txostena bidaltzeko izan direnak, eta hau ondoriozta daiteke:

ARAUDIA	Irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudiari buruzko informazioa
	Oro har, jendeak ez daki 1/2013 LED indarrean jarri denik eta ez du dekretu horren norainokoa ezagutzen
	Idatzi duten teknikariek ez dakite zertan bereizten diren irisgarritasun-baldintzak, igaragarritasun-baldintzak eta salbuespenak
	Nahasmena dago indarrean dauden arauen dispersioaren eta horiek aplikatzeko kontuan hartu beharreko hierarkiaren inguruan
	Autonomia-erkidegoko araudiaren eta Estatuko araudiaren arteko gatazka-guneen berri ematea
JABEEN ERKIDEGOAK	Etxebizitza-eraikinetan arkitektura-oztopoak kentzea helburu duten esku-hartzeen helmenari eta eskakizunei buruzko alderdi teknikoak

PROZEDURAK	Jabetza Intelektualaren Legearen eraginpeko akordioak sinatzeari buruzko kontsultak Eusko Jaurlaritzaren mendeko Bizilagun zerbitzuaren esku utzi dira
	Eraikinak irisgarritasun-araudira egokitzea helburu duten obrak egiteko diru-laguntza lerroei buruzko informazioa
	Etxebizitzak eta garaje-plazak desafektatzeko prozedurari buruzko informazioa
	Araudia interpretatzeko zenbait irizpide argitaratzeko eskatzen da, bereziki, udal teknikariekin horiek aplika ditzaten salbuespenak onartzen dituzten erabakitzeko.

### C.- Beste laguntza-eginkizun batzuk:

#### - Eraikuntza-proiektuetako irisgarritasun-fitxak

Eraikuntza-proiektuak kontrolatzeko irisgarritasun-fitxak berrikusi dira, eta CTE-SUA dokumentuak eta VIV/561/2010 Aginduaak dakartzaten zenbait ñabardura gehitu dira.

- VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1eko, espazio publiko urbanizatuak irisgarriak egiteko eta erabili ahal izateko irisgarritasuneko eta ez-diskriminazioko oinarrizko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duena.
- Otsailaren 19ko 173/2010 Errege Dekretua, Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena. Ezgaitasuna duten pertsonak ez diskriminatzeari eta irisgarritasunari buruzko martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretu bidez onartu zen Eraikuntzaren Kode Teknikoa.

#### - EIT txosteneko irisgarritasun-fitxak

Etxebizitza Zuzendaritzaren Araudi Zerbitzua elkarlanean aritza Eraikinen Ikuskaritza Teknikoko txostenarekin batera doazen zenbait fitxa egiteko. Fitxa horiek irisgarritasun-baldintzak betetzeari buruzkoak dira, eta dokumentu hauek bete daitezen dute helburu: 241/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena; eta 2013ko urriaren 15ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, aipatutako dekretuko II. eta III. eranskinak aldatzen dituena.

- <https://www.euskoregite.com/eu/>

#### - Euskadiko irisgarritasun unibertsalari buruzko lantaldea

Euskadiko irisgarritasun unibertsalaren egoerari buruzko diagnostikoa egitea proposatu da, hainbat ikuspegi eta arlo kontuan hartuz eta aurrera egiteko lerro nagusiak identifikatzuz.

2015ean, Elkarteaneak eskatutako bilera egin da, gai horretan egindako aurrerapenen berri jakiteko.

- Irisgarritasunari buruzko jardunaldiak antolatzea

2015eko otsailaren 27an, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailburuordetzako teknikariei zuzendutako irisgarritasunari buruzko jardunaldiak egin ziren. Hona hemen jardunaldi horiek antolatzeko arrazoia: indarrean dagoen irisgarritasun-araudian eta, nahiz eta irisgarritasun-baldintzak arautzera ez mugatu, irisgarritasun-araudiarekin zeharka lotuta dauden beste araudi batzuetan egindako aldaketak aztertzea, informazioa trukatzea, eztabaideatzea, nork bere iritzia ematea, eta, ahal den neurrian, lanean kontuan hartu beharreko jarraibideak bateratzea eta elkarlanean aritzeko moduak ezartzea.

Epaile bat eta magistratu bat egon ziren bileran, horien ikuspegia interesgarria izan zitekeela-eta. Honako gai hauek aztertu ziren: 8/2013 Legea, indarrean dagoen JHL, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua eta beste batzuk (Eusko Jaurlaritzak egindako eskaerari erantzute aldera Sustapen Ministerioak bidalitako informazio-oharra, EKT babesteko arrazoizko egokitzapenei buruzko behin-behineko dokumentua, EKT babesteko arrazoizko egokitzapenei buruzko behin-behineko dokumentuaren gain autonomia-erkidegoek eta profesionalek egindako ekarpenen laburpena biltzen duen dokumentua).

**4. IRISGARRITASUNAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUKETEI BURUZKO INFORMAZIOAREN IGORPENA**

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak osoko bilkura bat egin zuen 2012ko urtarrilaren 26an, eta bilkura horretan erabaki zuen, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 2/1997 Legeak arautzen duena betetzeko, urtero txosten bat eskatzea foru-aldundieei eta Eusko Jaurlaritzari, haien sail eta zuzendaritzek beraien eskumen-eremuetan eta irisgarritasunaren alorrean egin dituzten jarduketei buruzkoa, Kontseiluak Eusko Legebiltzarrari urtero igortzen dion txostenean jaso dadin hainek igorritako informazioa.

Erabaki hori betetzeko, sail eta zuzendaritzen berezko eskumenen baitan 2015. urtean eta irisgarritasunaren alorrean egin dituzten jarduketak (irisgarritasun-planak, egitatezko eskuhartzeak, diru-laguntzen deialdiak, jardunaldiak, etab.) azaltzeko txosten baten eskaera egin zien Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak foru-aldundieei eta Eusko Jaurlaritzako sail guztiei, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak egiten duen urteko txostenean jasotzeko informazio hori.

Taulan, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak egindako informazio-eskaerari erantzun dioten erakundeak ageri dira. Era berean, erantzun horiek dokumentu honen **4. ERANSKINEAN** jaso dira.

ARABAKO FORU ALDUNDIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Obra-proiektuak idaztea</li> <li>- Obrak egitea</li> </ul>
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irisgarritasun Planaren garapena</li> </ul>
LEHENDAKARITZA. EUSKO JAURLARITZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ilekia atariaren irisgarritasun-sistema</li> <li>- Eraikinen egokitzapena</li> </ul>
Osasun Saila EUSKO JAURLARITZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Obra-proiektuak idaztea</li> <li>- Obrak egitea</li> </ul>
Administrazio eta Justizia Saila EUSKO JAURLARITZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Obra-proiektuak idaztea</li> <li>- Obrak egitea</li> </ul>
Ogasun eta Finantza Saila EUSKO JAURLARITZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Obra-proiektuak idaztea</li> <li>- Obrak egitea</li> </ul>
Segurtasun Saila EUSKO JAURLARITZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Obra-proiektuak idaztea</li> <li>- Obrak egitea</li> </ul>
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Politiketako Sailburuordetza EUSKO JAURLARITZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duen dekretua (50/2016 Dekretua)</li> <li>- Irisgarritasunaren arloko ekintzak barne hartzen dituzten jardueretarako laguntzak (2014ko azaroaren 5eko Agindua)</li> <li>- Diru-laguntza izenduna Elkarteani</li> <li>- Diru-laguntza izenduna ONCEri</li> </ul>
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Etxebizitza Sailburuordetza EUSKO JAURLARITZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irisgarritasunari buruzko udal planak idazteko eta plan horietatik eratorritako obrak egiteko laguntzak</li> <li>- Etxebizitza-eraikinak birgaitzeko eta irisgarri bihurtzeko laguntzak</li> <li>- RENOVE planaren laguntzak</li> </ul>
LANBIDE	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enplegu-zerbitzuaren bulego berria</li> </ul>
VISESA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Obra-proiektuak idaztea</li> <li>- Obrak egitea</li> </ul>

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 28a

Angel Toña Guezeraga jauna

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren presidenteoa

Ignacio Basáñez Alfonso jauna

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren idazkaria

## 1. eranskina

### 2015eko maiatzaren 20ko ezohiko osoko bilkuraren akta

2015eko azaroaren 18ko ohiko osoko bilkuran onartu zen

#### ISETxen irizpena

2015eko maiatzaren 20ko ezohiko osoko bilkuran adostutakoaren araberakoa

## IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

### URTEKO TXOSTENA 2015. URTEA



**AKTA, IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAK 2015EKO  
MAIATZAREN 20AN EGINDAKO OSOKO BILKURA BEREZIAREN****PARTE-HARTZAILEAK:**

ANGEL TOÑA GUENAGA jauna  
Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua  
Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidentea

IGNACIO BASAÑEZ ALFONSO jauna  
Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkaria  
Etxebitzitako zuzendaria.  
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila  
Eusko Jaurlaritza

CARLOS IZAGUIRRE SAN EMETERIO jauna  
Antolamendu arloko arduraduna.  
Turismo Zuzendaritza.  
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila  
Eusko Jaurlaritza

AITOR URIARTE UNZALU jauna  
Joko eta Ikuskizunetako zuzendaria  
Segurtasun Saila  
Eusko Jaurlaritza

ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO andrea  
Garraio-azpiegituren zuzendaria.  
Ingrumen eta Lurrarde Politika Saila.  
Eusko Jaurlaritza

JOAKIN TELLERIA AGUIRREZABALA jauna  
Baliabide Orokoren zuzendaria  
Ogasun eta Finantza Saila  
Eusko Jaurlaritza

POLENTZI URKIJO SAGREDO jauna  
Baliabide Materialen eta Azpiegituren zuzendaria.  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.  
Eusko Jaurlaritza

ARANTZA UNAMUNO andrea  
Teknikaria  
Garraio Plangintzaren Zuzendaritza.  
Eusko Jaurlaritza

SERGIO MURILLO CORZO jauna

Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Zuzendaritza  
Nagusia.

Bizkaiko Foru Aldundia

JOSE MANUEL ODRIOSOLA AZurmendi jauna

EUSKO FEDERPEN - Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Federazioko presidentea

RAQUEL BARROSO ORDÓÑEZ andrea

ELKARTEAN Gipuzkoa - ELKARTUREn ordezkaria

MARÍA CONCEPCIÓN FRANCO RUIZ andrea

ELKARTEAN Araba - EGINAREN EGINEZen ordezkaria

JUAN CARLOS SOLA GUZMÁN jauna

FEKOOR - Gutxitasun Fisikoak edota Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailearen ordezkaria.

ARANTZA URIARTE LAFUENTE andrea

Errehabilitazio teknikaria

ONCEren Lurralde Kontseilua

JORGE MAGAN PLAZAOLA jauna

EHAEOren presidentea

JUDITH ARRÓNIZ SAENZ DEL CASTILLO andrea

Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala

**ETORRI EZIN IZAN DIRENAK:**

IÑIGO POMBO ORTIZ DE ARTIÑANO jauna

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidenteordea

Gizarte Politiketako sailburuordea

Emplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Eusko Jaurlaritza

LEZO URREIZTIETA jauna

Santurtziko udaleko zinegotzia

EUDEL Bizkaia



JAVIER BOTELLA ASTORQUI jauna  
Eraikin Elkartuen Ataleko arkitekto burua  
Arabako Foru Aldundia

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa E.K.E.

**LAGUNTZA TEKNIKOA:**

AGUSTÍN DE LORENZO URIEN jauna  
Etxebizitza Zuzendaritzako teknikaria,  
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila  
Eusko Jaurlaritza

JAVIER REGALADO HERRERO jauna  
Irisgarritasun-arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren arkitektoa

SAGRARIO ITURRATE EGUILÚZ andrea  
Irisgarritasuneko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren abokatua

2015eko maiatzaren 20an Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak osoko bilkura berezia egin zuen, Kontseiluko kideei bilerarako deia egin zitzaienean proposatu zitzaien GAI-ZERRENDAn bildutako gaiak jorratzeko.

LEHENengo PUNTA.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUKO PRESIDENTEA AURKEZTEA: ANGEL TOÑA GUENAGA JAUNA, ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUA.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren idazkariak, Ignacio Basañez jaunak, eskerrak eman dizkie bertaratu diren Kontseiluko kideei eta Angel Toña Guenaga jauna aurkeztu du. Azken hori Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu berria da eta beraz, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidentea ere bada.

Angel Toña jaunak ongietorria eman die Euskal Kontseiluaren osoko bilkura berezira etorri diren guztiei eta aurkezpenen txanda egitera gonbidatu ditu.

BIGARREN PUNTA.- IRISGARRITASUNAREN ARLOAN INDARREAN DAGOEN ARAUDIAREN ARABERA, GARRAIO-ZERBITZUARI ZER IRISGARRITASUNBALDINTZA ESKATU BEHAR ZAIZKION EZTABAI DATZEA.

Ignacio Basañez jaunak osoko bilera bereziaren xedea garraio-zerbitzu batir isgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia kontuan hartuta eska dakizkiokeen

baldintzak baloratzea dela azaldu die bertaratu direnei, garraio-zerbitzu bat araudiak aurreikusitakora egokitzeko momentaluan "ibilbide baten luzerak edo distantziak" izaten duen eragina jorratzu.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak bi kideren eskaera jaso zuen - Bizkaiko Foru Aldundiaren Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Zuzendaritza Nagusiarena eta Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazioarena (FEKOOR) - irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera Etxebarriko anezkaren kasuan (Bizkaia) nola jardun behar zen aztertzeko, ebaluatzen eta proposatzeko, eta horregatik egin da bilera.

Arrestian aipatutako xederako, Bizkaiko Foru Aldundiaren Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Zuzendaritza Nagusiak Euskal Kontseiluko kideen eskura jarri ditu Fekoorek Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio Sailari egindako eskaera, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailaren Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren Bide-segurtasun, Hobekuntza eta Modernizazio-Zerbitzuak egindako txostenetan, Lehorreko Garraioaren Ikuskaritzaren 128/2014 zenbakidun Ikuskapen-akta eta Errepideko Garraioaren Ikuskaritzaren 14/2015 zenbakidun Ikuskapen-akta.

Bestalde, Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazioak (FEKOOR) gai berbera jorratzeko asmoz eskatu dio Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari osoko bilkura berezirako deia egiteko.

Dokumentu guztiak aldez aurretik bidali zitzaitzien Euskal Kontseiluko kideei, osoko bilkura berezia egiteko deiarekin batera. Hala ere, José Manuel Odriozola jaunak, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Federazioaren ordezkariek, planteatu den gaiaren laburpen txikia egiteko eskatu du.

Ignacio Basañez jaunak Agustín de Lorenzo jaunari eman dio hitza, hots, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko idazkariari, Kontseiluari aurkeztutako kasuaren laburpen txikia egin dezan.

De Lorenzo jaunak azaldu duenez, Etxebarriko anezkaren kasu zehatza gorabehera, Euskal Kontseiluak aztertu era iritzia eman dezan aurkeztu den gaia araudia kontuan hartuta zerbitzu guztiei (garraio-zerbitzuak izan zein ez) eska dakizkieken irisgarritasun-baldintzak zehaztean datza.

Jarraian, Ignacio Basañez jaunak Sagario Iturrate andreatsi eman dio hitza, Láguntza Zerbitzuaren abokatuari, Odriozola jaunaren eskaerari erantzuteko eta beraz, Euskal Kontseiluari planteatu zaion Etxebarriko anezkaren kasua (Bizkaia) labur azaltzeko.

Sagario Iturrate andreak jakinarazi duen legez, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari planteatu zaion kasu zehatz horrek argi erakusten du Herri Administrazioei edo kasu bakotzean eskumena duten instantziei argitu egin behar zaiela irisgarritasunari buruzko araudiira egokitzeko eskaera hori edozein zerbitzuri aplika dakiokeela eta "zerbitzuaren kate osoan" araudi hori betetzen dela bermatu behar dela. Agerikoa denez, egokitzapen-lan hori eraikinak eta instalazioak egokitzea baino gehiago da.



Iturrate andreak adierazi duenez, Etxebarriko anezkaren kasuan ezarri zen garraio-zerbitzuar eska dakoileen irisgarritasun-katea hautsi da. Hasiera batean herritarren metroaren Etxebarriko geralekuraino eramango zituen garraio-zerbitzu bat herritarren eskura jartzea ebatzi zen, anezka metroaren geralekutik bertatik jarri. Hala ere, ostean anezkaren geralekua metroaren geralekutik 700 bat metroko distantziara jartzea ebatzi zen. Horixe litzateke zerbitzua ezartzeko orduan sortutako distantzia eta berez oztipo arkitektonikoa litzateke biztanle gehienentzat.

Sagrario Iturrate andreak jakinarazi du, Kontseiluak haren laguntzaren bidez orain martxan diren prozeduren autuak ezagutu ezin izan baditu ere, eman dizkioten dokumentuetatik eta hedabideek gaiaren inguruari bildu duten informazioetik honakoa ulertzen dela: eztabaidaren funtsa anezkaren abiapuntuaren eta helmugaren kokapena erabakitzeko eskumena norena den zehaztea da eta hori ebatzi arte, hots, Bizkaiko Foru Aldundiak bidaiaien trafikoa zehazteko duen eskumena edo Udalak autobusak haren udalerrian egin beharreko geralekuak jartzeko duen ahalmena gailendu behar den zehaztu arte, anezkaren geralekua metroaren Etxebarriko geralekutik 700 bat metroko distantziara kokatzea erabaki da, erabiltzaileen "segurtasuna" haien "deserosotasunaren" gainetik dagoela uste baita.

Iturrate andreak baloratu duen legez, hori ebatzeko eskumena duen Administrazioa edozein delarik ere, anezkaren geralekua non kokatuko den ebatzeko araudia errespetatu beharko da eta geraleku hori metroaren geralekutik 700 metroko distantziara jartzeko erabakia ez dator bat irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudiarekin. Horrenbestez, erabiltzaileentzako "deseroso" modura kalifikatze hutsa ez da bidezkoa.

Iturrate andreak Javier Regalado jaunari eman dio hitza, Lagunza Zerbitzuko arkitektoari, Etxebarri bisitatu ondoren eta tokian bertan egoki ziren egiatzapenak egin ondoren 2015eko apirilaren 27an egin zuen txostenaren ondorioak Kontseiluko kideei azaltzeko. Euskal Kontseiluko kideei ere bidali zitzaien Regalado jaunak egindako txostena, osoko bilkurarako deialdiarekin batera.

Regalado jaunak txostenaren laburpen txikia egin du eta metroaren Etxebarriko geralekutik Bizkaibusen A-3932 linearen oraingo geralekuraino (Nerbioi kalean) jóateko egin daitezkeen bi ibilbideak aztertu ondoren, indarrean dagoen araudiaren arabera ibilbide bat ere ez dela irisgarria ondorioztatu daitekeela adierazi du.

Intenbide biek irisgarritasun arazoak dituzte oinezkoen pasabideei dagokienez eta kaşuren batean oso zaila litzateke arazo hori konpontzea, biribilgunearren ondoko Zubia zeharkatzen duen oinezkoentzako pasabidearen kasuan esaterako. Oinezkoentzako gainerako pasabideetan irisgarritasun arazoak daude baina araudia errespetatzen duten obra egokiak gauzatuz gero, konpon daitezke.

Era berean, Regalado jaunak Sabino Arana zubiko espaloiaaren zabaleran konpontzeko oso zaila den arazoa hauteman duela adierazi du. Zubiaren plataformaren zabalerak berak eta galtzadak bi norabideetarako trafikorako izan behar duen zabalerak mugatzen dute espaloiaaren zabalera. Horrenbestez, irisgarritasunaren ikuspegitik, ibilbidea hori ez da intenbide erreala.

Hauteman den eta behin eta berriro errepikatzen den beste arazo bat litzateke espaloiaaren gainean gaizki jarrita dauden hiri-altzariena. Ibilbidea irisgarria izateko,

hiri-altzari horiek berriro kokatu beharko lirateke.

Amaitzeko, Regalado jaunak oinezkoen pasabidera pasatzeko dagoen arrapalak bigarren eskudela behar duela adierazi du; jada badagoen eskudelaren kontrako aldean.

Dena den, Javier Regalado jaunak ondorioztatu duenez, irsgarritasunaren arloan dagoen arazorik larriena ibilbidearen distantzia bera da. 700 metro egitea ezinezkoa da ibiltzeko zailtasunak, arnasteko arazoak edo ikusmen arazoak dituzten pertsonentzat. Tarteren batean esertzeko eta atseden hartzeko jarlekuak badaude ere, egurats zabalean daude eta beraz, ezin dira beti erabili. Hori dela eta, ezin da esan arazoa konponduta dagoenik, ezta arazoa arindu denik ere.

Javier Regalado jaunak egindako ikuskapenetik ateratarako ondorio gisa, aztertu den hiriko inguruan dauden oztopo arkitektonikoak ezabatu behar dira eta horrez gain, posible diren ibilbide bietan ezin da distantzia laburtu eta beraz, indarrean dagoen araudia errespetatz irsgarritasuna bermatzeko, egoera hori berriro planteatzeko modu bakarra dago, zerbitzuaren ezarpenean sortutako distantzia ezabatuz.

Ibilbideak irsgarriak izango balira ere, haien luzera indarrean dagoen araudiaren aurka doan oztopo arkitektonikoa dela argitu du Agustín Lorenzo jaunak. Bide publikoan kokatuta dauden aparkalekuei dagokienez, inguruko eraikinen eta zerbitzu publikoen sarreratik hurbil jarri beharko liratekeela dio araudiak; eta oinezkoek erreserbatuta dauden bi plazen artean ibili beharreko distantzia ezin dela 250 metrotik gorakoa izan, irsgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko asmoz hain zuen ere. (Irsgarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituen 68/2000 Dekretuaren II. Eranskinaren 3.11 artikuluak hori aurreikusten du hiri-ingurunerako). Era berean, araudiak dioenez, ahalmen urritasunaren arloko politiken zeharkakotasunaren printzipioari jarraituz, Herri Administrazioek gauzatzen dituzten jarduketak ez dira beren beregi pertsona horientzat pentsatutako planak, programak eta jarduketa espezifikoak egitera mugatzen; izan ere, jarduketa horiek barne hartzen dituzte esku-hartze publikoaren arlo guztiitarako politika eta jarduketa-ildo orokorrak ere. Horietan kontuan hartuko dira ahalmen urritasunen bat duten pertsonen beharrizanak eta eskariak (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, pertsona desgaituen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duena).

De Lorenzo jaunak adierazitakoaren ildotik, Etxebarriko anezkaren kasuan zerbitzuaren kate osoan zehar irsgarritasun-baldintzak ez bermatzeaz gain, itsailaren 1eko VIV/561/2010 Aginduan espresuki xedatutakoaren aurka doala baloratu du Sagrario Iturrare andreak. Agindu horren bidez, urbanizatutako espazio publikoetara sarbidea izateko eta haien erabiltzeko oinarrizkoak diren irsgarritasunerako eta ez diskriminatzeko baldintzen dokumentu teknikoa garatu da, oinezkoentzako irsgarria den ibilbidearen kasuan "luzera" baloratu beharreko elementu modura zehazten duena, ibilbide hori diskriminatzalea izan ez dadin.

José Manuel Odriozola jaunak, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Federazioaren ordezkariak, Udalak anezkaren geralekua metroaren geralekuaren ez jartzeko hartutako kautelazko neurrien prozeduran zein arrazoi eman duen interesatzen zaiola adierazi du.

Juan Carlos Sola jaunak, Feko - Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazioaren ordezkariak, Etxebarriko Udalarekin egindako bileretan honakoa

komentatū zitzaiela esan du: anezkaren geralekua metroaren geralekuau jarriko balitz, ibilgailuen trafikoak gora egingo luke eta horrek segurtasun arazoak ekarriko lituzke. Fekoor-rek anezka igarotzen den maiztasuna murriztea proposatu zuen -20 minuturo pasatu ordez, orduro pasatzeko- baina gaia epaitegietara eraman zenez, ezin izan zen horren inguruan ezer erabaki.

Juan Carlos Sola jaunak adierazi duenez, ez du gai hau ulertzen, emandako ebazenak indarrean dagoen araudia ez errespetatzeko eskatzen duelako, ahalmen urritasunen bat duten pertsonen eskubideak urratuz.

José Manuel Odriozola jaunak abian diren prozedura judizialek zein bilakaera izan dezaketen jakin nahi du, kontuan hartuta kautela modura ez dela beharrezkotzat jo anezkaren geralekua hasierako tokian jartzea, metroaren Etxebarriko geralekuau, alegia.

Sagrario Iturrate andreak, zerbitzuaren abokatuak, prozeduraren parte ez denez, ezin duela zehatz-mehatz prozedura zein egoeratan dagoen eta alderdien baldintzak eta jarrera zein diren jakin adierazi du. Dena dela, arazoa bera gai honen inguruan erabakitzeko eskumena duen Administrazioa zein den zehaztea bada, prozedura judizialean eskuduntzat jotzen den Administrazioak defendatzen duen erabakia hartuko dela suposatu daiteke. Hori dela eta, Iturrate andrearen aburuz, argi geratu behar da Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak zer iritzi duen irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudiak gai honen inguruan dioenari buruz. Iza ere, hori argitutakoan, Herri Administrazio eskuduna edozein delarik ere, araudi hori errespetatuz eman beharko du ebazena.

Sergio Murillo jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendari nagusiak, pertsona guztien arteko berdintasuna bermatzeko diru-laguntzak eta laguntzarako zerbitzuak emateaz gain, haren zerbitzuan ingurunea eraldatzea beharrezko dela azaldu du eta hain zuzen ere arlo horretan garraio-zerbitzuak funtsezkoak direla. Horregatik, garraio-zerbitzuei dagokienez, ingurunea eraldatzen eta intermodalitatea indartzen ari dira, pertsonen autonomiari mesede egiteko.

Raquel Barroso andreak, Elkartean Gipuzkoa - ELKARTUren ordezkariak, Etxebarriko anezkaren kontuan nahasita dauden alderdi guztiak osoko bilkuran ez egotea arraroa egiten zaiola adierazi du, gai hori eztabaidatzeko egin baita Kontseiluaren osoko bilkura berezirako deia. Barroso andreak dioenez, garraioarekin eta beste arlo batzuekin erlazionatutako beste kasu asko daude, araudia betetzen ez dutenak edo benetako hutsuneak dituztenak, eta horiek ere ebatzi beharko lirateke.

Sagrario Iturrate andreak jakinarazi duenez, osoko bilkura kasu zehatz baten harira egin bada ere, Etxebarriko anezkaren kasua hain zuzen, osoko bilkura bereziaren xedea araudiari lotutako kontzeptu bat argitzea da. Iturrate andreak dio Euskal Kontseiluak ez duela kasu zehatzen inguruan ezer erabakitzeko eskumenik baina bai irisgarritasunaren arloko araudiaren irizpideak interpretatu eta/edo argitzekoa, kasu horietan gertatzen den bezala, eta administrazio eskudunei neurri jakin batzuk hartzeko proposatzeko eskumena ere badu. Etxebarriko anezkaren kasuan nahasitako alderdiak bileran ez egoteari dagokionez, Iturrate andreak azaldu duenez, bilerara Eudelen ordezkaririk joan ez bada ere, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko kide guztiei bidali zaie deialdia, tartean Foru Aldundie, Eudeli eta Fekoor-ri. Edonola ere, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal



Kontseiluari dagokio irisgarritasunaren araudiaren interpretazioaren gaineko eztabaidea egitea eta ondorioak ateratzea, berdin da nahasitako alderdiak nortzuk diren eta ez da nahitaezkoa haien Kontseiluaren osoko bilkuran egotea.

Era berean, Sagrario Iturrate andreak azaldu du instantziek eta administrazioek ez dutela irisgarritasunaren arloko araudia osorik ezagutzen eta honelako egoerak horren ondorio direla. Beraz, Kontseilutik beti esan izan da irisgarritasunaren arloko adituak bertan egotea edo lankidetzan aritza beharrezko dela, haien lan-eremua edo arloa gorabehera, irisgarritasunak zeharkako izaera duelako. Beraz, hezkuntzan, osasunean, justizian, administrazioan, enpresan, turismoan eta beste hainbat arlotan bermatu behar da irisgarritasuna, eta jakina, ez da zerbitzuak eskaintzen diren eraikinetan bakarrik bermatu behar, eskaintzen diren zerbitzuen kate osoan zehar baizik. Horretarako, desberdintasuna eta dibertsitatea errespetatzen dituen hezkuntza eskaini behar da, zentzurik zabalenean.

Juan Carlos Sola jauna Sagrario Iturrate andrearen iritzi berekoa da eta haren ustez, ezjakintasun horren adibide argia litzateke epaitegietan irisgarritasunaren arloko araudia betetzen ez duen zerbait "deserosotasun" modura baloratzea.

Barroso andreak egindako iruzkinari dagokionez, Eusko Jaurlaritzari gai hau osoko bilkuran jorratzeko egindako eskaeraren helburu bakarra araudiari lotutako gauza bat argitzea eta Kontseiluaren babesia lortzea baino ez zela azaldu du Juan Carlos Sola jaunak. Fekooren asmoa ez zen epaiketa paraleloa egitea, ezta Euskal Kontseiluaren aurrean alderdiak aurrez aurre jartzea ere.

Raquel Barroso andreak egindako esku-hartzea argitu nahi izan du, esanez ez zela haren asmoa kontu hau osoko bilkurara eraman behar ez zela esatea, ezta Kontseiluak prozedura modu desegokian gauzatu duela esatea ere; guztiz kontrakoa, Barroso andreak oso modu positiboan baloratu ditu laguntzak egindako txostenak eta araudiaren ikuspegitik kasua tratatzeko baliatutako ikuspuntua.

Angel Toña jaunak, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidenteak, modu positiboan baloratu du Kontseiluak iritzia eman izana eta eskatu dutenei jakinarazi izana, horrela prozeduran aintzat har daitekeelako eta epaitegietan balora daitekeelako.

